

1. ildo: EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK GETXOTARRENTZAT BALIABIDE EKONOMIKOEN ARABERA

1. HARTZAILEAK

Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen duten eta Getxon erroldatuta dauden pertsonak.

2. IKASTAROAK

- Diruz lagunduko direnak **oinarri orokor hauetako 3.1 PUNTUAN** jasotakoak dira.
- Ikastaroak, HABEk homologatutako euskaltegietan egin beharko dira.
- Ezin izango dituzte dirulaguntza hauek jaso, matrikularen kostua ordaintzeko euren enpresen, erakundeen eta abarren dirulaguntza jasotzen duten pertsonak.
- Barnetegien kasuan ez dira egonaldiko gastuak ordainduko.

3. BALDINTZAK

3.1. Baldintza ekonomikoak

Eskatzailearen diru-sarrera likidoek (zerga oinarri orokorra + aurrezkien zerga-oinarria) ezin izango dute beheko taulan ageri diren kopuruak baino altuagoak izan (IKUS gehieneko diru-sarreraren taula).

3.2. Asistentzia

- Aurrez aurreko eta jardun biko ikastaroetan: eskatzaileak, gutxienez, euskaltegiak emandako **ikastordu guztien %75era** joan dela egiaztatu behar du.
- Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan: **mintza-saioetan** izandako asistentzia orduekin, gutxienez, **ikastaroaren ordu teoriko guztien % 7,5era** iritsi.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dirulaguntza eskaera bat egin behar da egindako ikastaro bakoitzeko.

4.1. Eskaera

Dirulaguntza eskaera-Euskara Zerbitzua izeneko inprimakia beteta (ikus eranskina), kontu korrontearen zenbakia (**IBAN kodeari dagozkion 24 digitu**) jasota utziz.

Zerga betebeharrak egunean izatea: eskatzaileak besterik adierazten ez badu, Getxoko Udalak ofizioz ikuskatuko du eskatzaileak ez duela zorrik Gizarte Segurantzarekin, Bizkaiko Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin.

Horrez gain eta hala behar denean, eskatzaileen errenta aitorpenetako sarrera likidoak ere begiratu ahal ditu.

Zerga-datuez gain, Getxoko Udalak diruz laguntzea eskatzen den ikastaroari buruzko datuak eskatu ahal izango dizkie beste administrazio edo erakunde batzuei (HABE, euskaltegiak...).

Eskatzaileak kontsulta hauen guztiak edo zati batzuk ikuskatzearen kontra dagoela adierazi ahal du eskaera orrian bertan. Aurka dagoela adierazten badu eskaera elektronikoan erantsi beharko ditu eskatzen zaizkion dokumentuak.

GEHIENEO DIRU-SARRERAK

Eskatzailearen errenta aitorpenean ageri diren diru-sarrera likidoek (zerga-oinarri orokorra + aurrezkien zerga-oinarria) ezin izango dituzte gainditu ondorengo taulan ageri diren kopuruak:

FAMILIAN ZENBAT KIDE	GEHIENEO DIRU-SARRERA LIKIDOAK
1	38.500 €
2	49.680 €
3 edo 3tik gora	54.679 €

Zein errenta-aitorpena hartuko da kontuan? Oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, BAOn, argitaratzen diren egunean eskatzaileak eginda daukan azken errenta aitorpena hartuko da kontuan.

OHAR GARRANTZITSUAK

- Eskatzailea 18 urte edo 18 urtetik gorakoa bada, errenta aitorpeneko diru sarrera likidoak begiratuko dira.
- Eskatzaileak errenta aitorten bateratua egiten badu; bertan agertzen diren gainontzeko kideen errenta aitortenak ere begiratuko dira.
- Eskatzailea 18 urtetik beherako pertsona bada, berarekin batera erroldatutako pertsonen aitortenak izango dira kontuan.
- Eskatzaileak errenta aitortzen egin beharrik ez badu, Udalak ofizioz konprobatuko du edo horretara ukatuko balitz, interesatuak ziurtatu beharko du egiaztagiriaren bitartez.
- Benetako egoera ekonomikoa okerrera aldatu izan balitz egiaztatu beharko da eskabidea egiterakoan.
- Bekak esleitzerakoan, Oinarrizko Errenta jasotzen duten familiak lehenetsiko dira.